

GUaiXE.net



Iturmendiko
dantza taldea
eszenara



Kultura >> 15

Turismo **aktiboari** eta nekazaritza
ekologikoari buruzko ikastaroen
bidez **ekintzaileendako**
prestakuntza eskaitza



Sakanerria >> 3



Uzta-makinak lanean

>> 5

Festarako deia



>> 8/10



Edukiontzi
txuria, arropa
eta oinetakoak
biltzeko >> 6



Arbizuko IAT
estazioa
gainezka
dago >> 7



Konponduta
Urdalurko
ur ekarriko
matxura >> 5



Haur triatloia
larunbatean
Urdiaingo
igerilekuan >> 13



Haurrak
Aralarko
aingueruari
aurkeztera >> 7

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Izaro
ZORIONAK IZARO, azkenean iritsi da 7 urte beteko duzun eguna. Mila musu denon partez.



Joseja
Aitaaa ZORIONAK!! Oso ongi pasa eguna eta espero dugu zerbaitetara gonbidatzea, eeee, jajajaj! Etxekoan partez muxu handi bat. Ma-aaitte zaituugu.



Laia Alegria Lanz
Zorionak potxolina!! Astelehenean urte bat egingo duzu. Oso ongi pasa zure egunean. Muxu pila Aita, Ama eta Nagoreren partez.



Amaiur Cuadrado Nicolai
ZORIONAK zure 7. urtean. Muxuk zure aita-ama eta familien partez.



Gorka Senar Rekalde
Zorionak txiki! Ia 7 urte. Hemendik aurrera txin-xoago izan, muxu asko famili guztien partez.



June
ZORIONAK etxeko printze-sari!! Zenbat urte betetzen dituzu? ?? Zeinen handia zaren!! Segi orain arte bezain sorgintxo eta sinpatikoa izaten. Inhar, aita eta amaren partez.



Zoriontasuna beti zuekin eraman dezazuela!

garilak

19-25

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Jaione eta Aintzane Diaz ahizpak. Garilaren 23an, asteartean, 23:00etan Altsasuko Dantzaleku igerilekuan.

Kontzertu gehiago festen egitarauetan. Ikus 10. orria.

Zinema

Peso pesado. Garilaren 24an, asteazkenean, 22:00etan Irurtzongo Foru plazan.

Mendi irteera

Bargagain. Garilaren 21ean, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak taldearen egoitzatik.

Erakusketak

Natura eta Argitasuna. Agorrilaren 30era arte Lizarrustiko parketxean. Pintoreak eta eskultoreak: Grace Robert, Cao, Maria Alice eta Eduardo.

Tailerrak

Turismo aktiboa. Legedia eta Kudeaketa. Garilaren 23an, asteartean, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era Lakuntzan. Sakantzen Sarea.

Batukada. Garilaren 23an, asteartean, 19:00etatik 20:30era Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Aralarko San Migeli haurrak

aurkezteko IX. jardunaldia.

Garilaren 21ean, igandean, 12:30ean Aralarko santutegian. **Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradia.**

Ur Festa Goxoa. Garilaren 19an, ostiralean, 21:00etan Etxarri Aranazko igerilekuan. Garilaren 23an, asteartean, 21:00etatik aurrera Altsasuko Dantzaleku igerilekuan eta garilaren 24an, asteazkenean, 21:00etatik aurrera Lakuntzako igerilekuan.

The art confusion. Garilaren 24an, asteazkenean, 20:00etan Lakuntzako ostatuan. Jokin Kale eta DJ Nestortxo.

AHTren aurkako bizikleta martxa desobeditzailearen hasiera ekitaldia. Garilaren 25ean, ostegunean, 10:30ean Altsasuko Foru plazan. **Mugitu! Mugimendua.**

Deialdiak

Inasa aurrera! Garilaren 19an, ostiralean, 19:00etan Irurtzongo plazan, kontzentrazioa. **Langile ohiak.**

Hipotekek kaltetutakoan Plataforma. Garilaren 19an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 19an, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 21ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Garilaren 22an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Politika plazara. Garilaren 24an, asteazkenean, 19:30ean Altsasuko foru plazan. EHBildu. Hizlariak: udal ordezkariak, Asun Fernandez de Garaalde Lazkano eta Víctor Rubio parlamentariak.

objektibo tik



Irurtzun Telebistakoak lanean:
Irurtzongo festen hasierako etxajuan Irurtzun Telebistako lagunak topatu genituen lanean. Suziriaren leherketa jarraitzeaz gain, irurtzundarrei makina bat elkarrizketa egin zizkieten, umoretsu-umoretsu. Irurtzun euskaraz blogean izanen dugu haien berri.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net



Zein duzu gustokoena?
Galdera hori proposatzen digu irakurle batek. Eta bi argazki bidali dizkigu galderarekin batera. Asteartean, 14:30 aldera, aterata biak. Ezkerreko Etxarri Aranazten atera zuen. Eskubikoak, berriz, Altsasun.

belexe *online*
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era SAIOA

Asteburuko agenda
Asteko errepassoa: albisteak, kirolak, Bakaikuko flashmoba...
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

SUSTOA ENTZIERROAN:

Munduari buelta eman diote Iruñeko larunbateko entzierroko zezen-plazako jende pilaketaren irudiek. Zorionez han zeu-

den gazte urdiandarrak onik atera ziren. Ez horrela Burundan familia duen gazte gasteiztarra.

ezkaatza >>

SAKANA

Turismo aktiboari buruzko Udako Ikastaroak

Asteartean, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era Lakuntzan, Mank-en egoitzan

Sakanako natur baliabideek eta ibarrean antolatzen diren kirol lehiaketa eta proba ugari eta arrakastatsuek turismo aktiboko enpresak eta lanpostuak sortzeko aukera ematen dute. Hala uste dute behintzat Sakantzen Sareko kideek eta, horregatik, antolatu dituzten Udako Ikastaroetako bat negozio aukera horren ingurukoa izanen da.

Irakaslea Jabier Fuertes Udaondo izanen da, Troka Abenturako gerentea, Euskadiko Turismo Enpresen Elkarte AKTIBA-ko presidentea eta hainbat erakundetan aholkularia da. 20 urte baino gehia-



Mendi bizikleta turismo aktiboko jarduera bat izan daiteke. ANA VILCHES

goko eskarmentua du turismo aktiboan. Astearteko ikastaroan turismo aktiboko egitasmoak martxan jarri ahal izateko legediari buruz jakin beharrekoak ezagutzeko aukera izanen da. Horrekin batera, adibide praktikoen bidez, Fuertesek haien kudeaketa egokia eta eraginkorra nola egin irakatsiko du, operazioen kudeaketarako sistema ezberdinak ezagutaraziz.

Bestalde, herenegun egitekoa

zen *Nekazaritza ekologikorako talde-prozesuen dinamizazioa eta kohesioa* izenburuko ikastaroa astelehenean egingen da, 16:00etatik 20:00etara, Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Silvia Larrañeta Armendariz irakasleak nekazaritza ekologikoaren oinarriak azalduko ditu, dinamika partehartzaileen bitartez etorkizunean gauzatzeko teknika ikasketak eta kohesioa landuz.

Hondakin bilketa berrira egokitu bitartean larrialdi guneak zabalik

Sakanako Mankomunitateko lehen-dakari Aitor Karasatorre Muguruzak azaldu digunez, hondakin bilketa sistema berrira egokitu bitartean Uharte Arakilgo, Lakuntzako, Arbizuko, Etxarri Aranazko, Bakai-

kuko, Iturmendiko, Urdiaingo eta Olatzagutiko larrialdiguneak zabalik egonen dira. "Giltzaz itxi aurretik, hainbat egunez zabalik izanen dira. Beraz, herritarrek lasai ibil daitezke".



Kuboa zintzilikarioan, Uharte Arakilen. Atzean, larrialdi gunea.

Bilketa egutegia

Hondakin mota	Noiz atera*	Noiz jasoko da
Organikoa	Igandean	Astelehenean
	Asteazkenean	Ostegunean
Ontzi arinak	Astelehenean	Asteartean
	Ostegunean	Ostiralean
Papera eta kartoia	Asteartean	Asteazkenean
Errefusa	Ostiralean	Larunbatean

*20:00etatik aurrera atera daiteke

Izena emateko

sakantzensarea@gmail.com helbidera idatzi edo 690 036 879 telefonora hots egin.



MUNTAKETA ETA INSTALAZIOAK



PROIEKTU EOLIKOAK ETA FOTOVOLTAIKOAK



GESTIO ENERGETIKO ETA MONITORIZAZIOA



Aingeru Mikeo

ERREDAKZIOAREN OHARRA



Agorrileko oporren aurretik argitaratuko den azken zenbakia heldu den astekoa izanen da.

astekoa

Sexting-a, sexu praktika berria

'Sexting' edo internet bidezko sexua. Irudi erotikoa internet bidez lagunei helaraztea, Ameriketako Estatu Batuetatik datorrigun moda berria. Badirudi han dezente hedatzen ari dela, helduen %40k praktikatzeko omen du eta. Bestalde, ohikoa denez, hango modak azkar zabaldu ohi dira hemen; batez ere, nerabeak tar-

tean badira, eta kasu honetan teknologia eta tresnak eskura badituzte.

Harreman eta maitasun afertan, aurretik ere izan dira modu bateko edo beste adierazpen erotikoa eta kitzikagarriak. Hor daude, esate baterako, James Joyce XX. mendeko ingeleseko idazle hoberenetakoren gutun lizun

eta erotikoak, bere maitale Nora Barnacleri idatzitakoak.

Sextingari (edo saresexuari) buruz, sexu kontuetan adituek diote maitaleen artean limurtzeko erabilitako beste jokabide bat dela. Alabaina, garbi ohartarazten dute behin irudiak bidalitzeko gero, haien gaineko kontrola galtzen dela, eta eremu intimoa gain-

dituz gero, ondorio lazgarriak izaten ahal dituela. Gauza bat maitasunaren sualdaren erdian, xoxoturik, maite-kuttuna horrela zirikatzea da eta, beste bat, ustekabe batean edo behin harreman hautsita, arranguraz haietaz egiten ahal den erabilera. Bizitza osorako zama garrantza bihurtzen ahal dena.

Kontuz bada, Ameriketako Estatu Batuetatik tarteka zer edo zer onuragarria ailegatzen bazaigu ere, asko kaltegarriak izaten baitira, teknologiaz mozorrotuta heldu arren. Sexu kontuetan, sex-guru ibili.

aingerumi@gmail.com

hara zer dien

Une larria

Aurre ikusitakoaren arabera, Madrilgo Gobernuak jubilatuta eta pentsionistei dagokigun lege aldaketekin, kezka piztu dute guregan eta aldarrikapenen ildotik, adinekoen koordinadorak, erantzun tinko bat emateko erabakia hartu zuen. Gobernuaren jarrerak kolektiboari eragiten dion kaltea aztertu eta eman beharreko pausoak zehaztu ziren.

Hasiera batetik erantzun bateratua eman behar zitzaioela ikusi zen eta kolektiboarekin zer ikusia duten talde eta sindikatuek manifestu adostu bat idaztea lortu zuten. Talde bakoitzak aipatu

nahi zituen puntu guztiak eta nahi bezain garbi. Manifestuak ez zituen jaso CCOO eta UGTek Toledoko hitzarmenarekin duten zer ikusia, pentsioen sistema ereduari buruz eztabaidatzeko ukatzen diguten eskubidea, sostenibilitate hitza manifestuaren izenburuan ezartzea. Hau dela eta, manifestuarekin ezadostasuna agertu zen, ekintzekin bat egin ez zuena. Sasoiaren ere jarrera kritikoa egon ziren, baina Nafarroako egoerari begiratuz eta politika arloan agertzen den jarrera kontutan izanik, manifestua eta gainerako ekintzak onartu ziren.

Dena den, etorkizunean eztabaida eskatzen duen gaia da eta horretan gaude.

Manifestazioa azkeneko urte hauetan jubilatuek Iruñean egin dituzten jendetsuena izan zen. Jendea erreta dago, krisiaren aitzakiarekin ez gaude prest guri dagokiguna galtzeko, konturatzeko gara gezurretan dabilzala, banku eta seguru etxeen diru sarrerak bermatu nahi dituztela eta gure eskubideak apurtu eta hori ez dugu inola ere onartuko.

Ulertezina da eraso politiko honen aurrean Nafarroako Jubilatuek elkarteengandik jaso dugun

erantzuna. Guztietara bidali ziren manifestuak eta baita ekintzen oharra ere. Bi edo hiruengandik bakarrik jaso zen erantzuna eta bakar batzuetan baino ez da sortu eztabaida, baina gehienetan hori ere ez. Salagarria da benetan. Elkarte hauek jubilatuek engainatu eta isilik edukitzeko sortuak direla dirudi. Horrela al da? Horrela izan behar al du? Nori interesatzen zaio jubilatuek parasitatu? CANen eta Nafarroako Gobernuaren mendeko izaten jarraitu behar al dugu? Jubilatuen soldadak eta eskubideak desagerrarazten dituen poli-

tikaren kolaboratzaileak bilakatu behar al dira? Hausnarketa sakon baten beharra ikusten da.

Uda eta oporrak iritsi dira, ongi pasatu eta gozatzea tokatzen da, eta horixe opa dizuegu guztioi, baina ez gehiegi lasaitu, Irailean denon indarren beharra izango da gure soldata eta eskubideak defenditzeko. Agur eta uda ongi pasatu.

sasoi
nafarroako jubilatuen elkarte
asociación de jubilados de navarra

hara zer dien

Sedukzioaren magia

Emakumeak, gizonak, etengabe elkarri begira gabilta. Gorputza daukagu, sexutuak gara, honengatik, besteak begiratzeko gogoak, besteengandik begirada jasotzeko grina, eta nola ez elkar ukitzeko, musukatzeko, laztantzeko desioa daukagu...

Hau guztia gerta dadin, ezinbestekoa da sedukzioa, bestearen begirada gureganatzea, bestea begiratzeko, elkarrekin topo egitea.

Sedukzioa, bestearen begirada

gureganatzeko erabiltzen dugun lengoaia da, eta honetarako norberak bere baliabideak erabili ohi ditu (gorputza, hizkuntza, trebeziak, arropa...). Bakoitzak bere baliabideak ditu, eta garrantzitsua da norberaren baliabideak zeintzuk diren jakitea, eta nola eta noiz erabili nahi ditugun.

Berez, epaiketetatik kanpo bizi bako bagina, argi eduki beharko genuke ez daudela seduzitzeko modu egokiak eta desegokiak, nahiz eta askotan jarrera edo

sedukzio joko batzuk etengabe epaitzen ditugun, eta "probokazio" hitza aipatzen da, zerbait negatiboa izango balitz bezala.

Noski pertsonak probokatzen dugula, guztiei gustatzen zaigulako begiradak jasotzea, besteak gu entzutea, besteen gustukoa izatea...

Nire izaerarekin, nire sedukzio-probokazio jokoagatik, probokatu-seduzituta geratzen direnak ez dute nirekin nahi dutena egiteko eskubidea. Sedukzioaren

jokoa, partaideek nahi dutenean eten dezakete eta, jokoa, elkarrekiko harremana, partaideak nahi duten arte luzatu dezakete.

Jokoan desadostasunak eta elkar ez ulertuak egon daitezke, eta horretarako tresna garrantzitsua daukagu: besteari galdetzea. Hau da, zerbait ez badut ulertzen, besteak nahi duena argi ez badut, ezin dugu ezer suposatuz, beraz, elkar ulertzeko biderik egokiena galdetzea da.

Sedukzioak, begiradak, elka-

rrekin egoteak, disfrutatzeak aukera paregabeak ematen dizkigu. Baina jakinda, guztia hau gertatzeko ezinbestekoa da gure buruari eta besteari zor diogun errespetua. Errespetua, besteak edozein momentutan jarri al dizkigun limiteak onartzeko, eta limite horiek guregan sortzen duten amorrua, haserrea, frustrazioa bideratzeko, besteari, mina eman gabe.

Olatz Berastegi

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net

GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net

PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net

• 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa

Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea

Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso

Zuzentzailea: Garazi Barandalla Kanpos

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

SAKANA

Urdalurko ur ekarriko matxura konponduta

Hileko aurreneko astean konpondu zuten Sakanako Mankomunitateak Urdalurko ur ekarrian zegoen matxura. Urdalurko uharkatik heldu den ur sarea Alzania ibaiaren azpitik pasatzen den tokian matxuratu zen. Ibaiak eramaten zuen enbor batek bi hodi elkartzen ziren juntan jo eta ur ihesa eragin zuen. Ur emaria jaitsi arte itxaron behar izan dute Mank-en lanak egin ahal izateko. 15.000 euroko aurrekontua izan dute.

Ilbeltzaren 15ean matxuratu zen hoditeria eta ur horniketa bermatzeko, 16an ur biltegi ondandagoen tratamendu planta zaharreko hodia Urdalurko tratamendu plantatik heldu den sare nagusiarekin lotu zen. Konponbide horrek aukera eman zuen tratamendu plantatik ura Altsasuko sare nagusira eta handik hornitzen diren beste herrietako sareetara zuzenean eramateko.

Baina kutsadura mikrobiologikoa zegoelako, ur kontsumoa badaezpada debekatua egon zen ilbel-



Urdalurko ur hornidura sarea luzatuta

Irurtzunera arte luzatzea da asmoa
Urdalurko uraz ibarreko ahalik eta herri gehien hornidura bermatzeko sarea zabaltzeko egitasmoa martxan du Sakanako Mankomunitateak. Aurreko urtean sarea Lakuntzatik Ihabarrera luzatzeko

lanak eman zituen Mank-ek. Eguerdialdiatik lan horiek behar baino gehiago luzatu dira eta garagarriaren 25ean despiditu ziren. Hala ere, Mank-ek Construcciones Legarra Lazkoz enpresari azken lan txiki batzuk egiteko eskatuko dio. Lanek 1.021.047 euroko aurrekon-

tua izan dute (895.000 euro Nafarroako Gobernuak eta 126.047 euro Mank-ek). Urdalurko ura Irurtzunera eramanez ahal izateko beste 7 bat kilometro luzatu behar da sarea. 1,5 milioi euro inguruko inbertsioa litzateke. Baina Mank-ek ezin du halako

lanik bere bizkar hartu Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarik gabe. Foru administrazioak tokiko inbertsioen azken lau urteko plana luzatu egin du eta deialdi berria egin arte Mank-ek ezin du azken zati horretako lanetarako diru-laguntzarik eskatu.

tzaren 23ra arte Lakuntzan, Arbizun, Urdiainen eta Altsasun. Ola-

tzagutian 25era arte egon zen debekua, herriko iturburuko filtroak

eta beste aldatu arte, kutsadura mikrobiologikoa eta uhertasun ara-

zoak baitzuten urak. Ziordian, berriz, 30era arte.



NPBrako 1.876 hektarea deklaratu dira



Uzta-makina herenegun Hiriberrin.

Europako Nekazaritza Politika Bateraturako (NPB) sakandarrek aitortu duten hektarea kopurua 1.874,48koa da. Hala jakinarazi digute Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentutik.

Deklaratutakotik 1.356,57 hektarea (% 72,29) abereen bazkarako dira. Gainontzeko 519,91 hektareak (% 27,7) laboreak eta bestelakoak erabiltzeko dira. Azaleragatik gehien ere indako bigarren produktua artoa da,

150,84 hektarearekin (% 8,03). Jarraian daude garagarra (138,88; % 7,4), garia (137,26; % 7,31), oloa (84,56; % 4,5) eta baba

(8,29; % 0,44). Udaberri hotz eta euritsuak atzeratu egin du laboreen ontzea. Hala, beste urte baterako garai

honetan uzta-makinak Sakanan lana ia despidituta bazuen ere, aurre ez da hala izan. Herenegun hasi ziren Arakilen uzta biltzen.

Hektarea kopurua

Herria	Garia	Gari gogorra	Garagarra	Oloa	Artoa	Baba	Bazka-laboreak	Guztira
Arakil	43,21	0	102,59	53,81	67,95	0	521,24	788,88
Irurtzun	0	0	0	0	0	0	2,97	2,97
Irañeta	8,74	0	2,05	0	6,71	0	75,02	92,52
Uhartea Arakil	1,3	0	9,43	3,28	31,92	0	267,16	313,09
Arruazu	10,15	0	0	0,98	25,11	0	25,34	61,58
Lakuntza	4,59	0	0	2,3	11,04	0	26,59	44,52
Arbizu	16,67	0	0	0	3,4	2,68	80,4	103,15
Ergoiena	24,89	0	0	0	0,09	0,04	70,85	95,87
Etxarri Aranatz	0	0	0	0	3,27	0,04	218,33	221,64
Bakaiku	3,18	0	1,83	2,09	0	1,83	9,59	18,52
Iturmendi	7,05	0	8,98	8,67	0	3,7	15,33	43,73
Urdiain	17,48	0	14	13,43	0,42	0	30,72	76,05
Altsasu	0	0	0	0	0	0	8,79	8,79
Olatzagutia	0	0	0	0	0,93	0	2,11	3,04
Ziordia	0	0	0	0	0	0	2,13	2,13
Guztira	137,26	0	138,88	84,56	150,84	8,29	1.356,57	1.876,48

PIVE PLANA AMAITZEAR

CITROËN *prefere* TOTAL

www.citroen.es

PRECIOS SÚPER ESTRELLA

carstore.citroen.es-en

SERIE BEREZIA
CITROËN C4 HDi TONIC **13.300€***

CITROËN C-ELYSÉE VTI EXCLUSIVE **10.500€***

KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO₂ IGORPENA (G/KM):
CITROËN C4: 4,2-6,4 / 109-148
CITROËN C-ELYSÉE: 4,1-6,5 / 108-151

*Citroën C4 HDi 90 Tonic PSP aholkatua, (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne), bezero partikularrentzat zeintzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen kobrea emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala eta 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, Banque PSA Financearen bidez Citroën PREMIUM finantzatu luke eta Essentialdrive komertzial bermearen luzapena kontratatuko lukeena gutxienez 2+1 edo 40.000 km (lehenengo gertatuko dena) hilabeteko abono bidez; finantzaketaren gutxieneko iraunkortasunaren betebeharrarekin, 36 hilabeteko zerbitzuarekin, Citroën C-Ellysée VTI 72 Exclusive (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne) bezero partikularrentzat zeintzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen Citroën bat emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala finantzatu dutenak, 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, AXA S.A. aseguru etxean kobretarako aseguruarekin reaseguratu kontratatuko dituztenak Banque PSA Financearen bidez, erregistro zenbakia web orrian ikusgai www.orias.fr. Hilabete akaberako eskaintza partehartzailen salmenta tokietan. Modeloa ikusgarri: Citroën C4 Exclusive eta Citroën C-Ellysée VTI 72 Exclusive. Eskaintza ez metagarria. Baldintzak www.citroen.es

SAN MIGUEL AUTO-TAILERRAK S.A. Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTSASU • 948 562 261 / Akabarro industrigunea • IRURTZUN • 948 600 657

SAKANA

Edukiontzi txuriak kaleetan

Arropak, trapuak eta oinetakoak biltzeko balio dute

Garagarzaroko azken astetik, Sakanako 11 herritan edukiontzi berria dago: txuria, erabilitako arropa, trapu zaharrak eta zapa-tak biltzeko balio duena. Sakanako Mankomunitateak Humana fundazioaren eskaintza ekonomikoak jasozuen eta bi urterako hitzarmena sinatu du.



Gizona edukiontzien ondotik pasatzen; aurrenekoa txuria.

Humanako kideak izanen dira edukiontzietan jasotakoa biltzeaz arduratuko direnak. Erakunde horrek edukiontzietan jasotako enpresa zati bat saldu egiten du, beste zati, bat Afrikara bidaltzen du eta, saldu ezin dena, trapu bezala enpresei saltzen die. Etekinekin hegoaldeko herrialdeengarapenerako proiektuak sustatzen ditu.

Aurretik Sakanako zenbait udalek Euskadi-Congo elkartearekin hitzarmenak sinatuak zituzten herrietan, edukiontzi

23 edukiontzi

Irurtzunen, Irañetan, Uharteko Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen, Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian jarri dira.

urdinak jarri zituzten eta, orain, edukiontzi txurietan jasoko dira material horiek. Baina udalek eta elkarteak adostu zuten denboran mantenduko dira edukiontzi urdinak kaleetan. Altsasun, esaterako, bilketa bererako edukiontziak urtebetez elkarrekin egonen dira.

>> Lakuntza / Etxarri Aranatz / Altsasu

Gazteendako Ur Festa Goxoak

Gaur, 21:00etatik aurrera Etxarri Aranatzko igerilekuan. Asteartean, 21:00etatik aurrera Altsasuko Dantzaleku igerilekuan eta asteazkenean, 21:00etatik aurrera Lakuntzako igerilekuan

Ilunduta bainua hartzeko plazeraz gozatzeko aukera izanen dute gaur Etxarriko igerilekura, asteartean Altsasuko Dantzalekuko igerilekura eta, asteazkenean, Lakuntzako igerilekura hurbiltzen diren 14 eta 30 urte bitarteko gazteak (bainujantzia eta txanoa eraman beharko dituzte). Horretaz gain, 3



Gozamenez programaren baitan kokatzen da festa. UTZITAKOIA

euroren truke afaltzeko aukera izanen dute (bokadiloa, edaria eta edabe erotikoa, txokolate beroaz jantzita). Afaltzeko asmoa dutenek igerilekuan (egunera arte) edo Gazte Informazio Gunean (altsasuarren kasuan) eman dezakete izena.

Ur Festa Goxoa Gozamenez programaren baitan kokatzen da. Haren helburua gazteei sexualitatearen ikuspegi positiboa, errespetuzkoa, plurala eta abesgarria eskaintzea da. Gozamenez programaren bitartez, gazteen artean sexualitateari buruzko hausnarketa eta arlo ezberdinen ingu-

Altsasuko egitaraua

21:00etan Festaren aurkezpena.
21:00etatik 00:00etara Bainua eta ur jokoak.
21:45etik 22:45era Afaria eta Erotiklik proiektzioa.
22:45ean Batukada.
23:00etan Kontzertua: Jaione eta Aintzane Diaz ahizpak, Los del Rayo-k lagunduta.

ruko eztabaida sustatu nahi da eta publiko eta ohikoak diren eremuetan sexualitatearen presentzia bultzatzea. Ur festa Goxoa aurrera eramateko, Sakanako makina bat tekninarik Izargiko hezitzailearekin batera lan egiten dute.

>> Irurtzun

Proposamenari emanen dioten erantzunaren zain Inasan

Inbertitzaileak, azkenean, asteartean aurkeztu zuen Inasa eskuratzeko proposamena. Hari hartzekodunen lehiaketa kudeatzen duten epaileak eta administratzaileak emanen dioten erantzunaren zain daude langile ohiak. "Ez dakigu noiz izanen den", esan digu Fernando Carrionek. "Eta, gainera, epaitegiaren agorrila hilabete baliogabea da. Ez dakigu noizko emanen dioten eskaintzari erantzuna".

Inasako zuzendari Santiago Gonzalez Berganzonesek hartzekodunen lehiaketako epaileari makineria desmuntatu eta erosle

ingelesek eramateko baimena eskatu zuen. Hura ere erantzun zain dago. "Baina makinaria erosi zuen enpresa ingeleseko langileak ez dira bueltatu" azaldu digu Carrionek. Hala ere, langileek Inasako atean zaintza txandak egiten segitzen dute.

Festetan kontzentrazioa

Gaur hasiko diren Irurtzongo festetan Inasako langileek aparteko presentzia izanen dute. Joan den urtean bezala, aurten ere, dirua ateratzeko barraka bat jarriko dute. Horrekin batera, txupinazo-



Langile ohiak txupinazoan.

an pankarta batekin presente izan ziren. Eta ostiralean haien egorearen berri emateko kontzentrazioa deitu dute, plazan, 19:00etan.

>> Altsasu

Hitzordu berria Lazaro Echeverriari

Langileek 136 egun egin dituzte greban

Astelehenean biltzekoak ziren Lazaro Echeverria enpresako zuzendaritza eta langileen ordezkariak. Baina aurrenekoek bezperan hots egin zuten ezin zutela esanez eta bilera aste bat atzeratu da. Langileen mugagabeko greba bukatzeko enpresak proposamen bat aurkeztuko du.

Lazaro Echeverriako langileek (ELAko 3 ordezkari enpresa batzordean) martxoaren 6an hasi zuten mugagabeko greba. Kaleratu dituzten sei kideak enpresak berriro har-



Etengabe batzartuta daude langileak.

ditzala eskatzen dute. Horrekin batera, langileen lan eta soldata baldintzak blindatuko dituen hitzarmena ere aldarrikatzen ari dira.

2x1
TXIKITXO
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 - ALTSASU

BUJANDA
okindegia

bai

Tel.: 948 467 503
Kale Nagusia 31, OLAZTI

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

BEHAR DITUZUN HERRAMINTA GUZTIAK!

asi

arreta eta orientazio psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA

Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
948 467 354 - 669 367 422

PPSOE,
ETB
digitala

Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

SAKANA

Haurrak Aralarko aingeruaren aurrera



Etxeok txikienek hitzordua dute, igandean, Aralarko santutegian.

Igandekoa egun berezia izanen da Aralarko santutegian, 12:30eko mezan Aralarko San Migeli haurrak aurkeztuko baitzaizkio. Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak hamargarrenez antolatu duen ekitaldian, gurasoak lagunduta, adin guztietako ume eta haur koxkorak aurkeztuko zaizkio aingeruari. Haren bedeinkapena jaso eta irudiagurtzeko aukera ere izanen dute.

Kofradiatik azaldu dutenez, "zeremonia honen xedea haur horiek San Migel eta bertako ohi-

turak maitatzea eta hau bezalako zeremonietara eta bestelakoetara etortzea da, Kofradiarekin sortutako harreman horri eutsiz".

Elizkizuna despeditu ondoren, kofradiako kideek haur bakoitzari bere izena duen pergamino bana emanen diete, San Migelen Lagun izendatuz eta bizi guztirako bere babesa eskatuz. Ostegunera arte izena eman dutenek jasoko dute oroigarria, igandean bertan santutegian agertzen direnak bi aste itxaron beharko dute jasotzeko.

Arbizu

Arbizuko IAT gainezka

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) Arbizun, edo Iruñean, pasa nahi duenak pazientziaz hartu beharko du egitekoa, iristen denetik ibilgailuak azterketa pasatzen duen arte asko itxarotea tokatuko baitzaio. Bi arrazoi daude 2 ordura arteko itxaronaldien atzean. Batetik, berez garilean ibilgailu askori tokatzen zaiela IAT pasatzea, oporretara egoki ikuskatua

joateko.

Arrazoi horri Irun eta Urnietako IAT estazioetako langileen greba gehitu zaio. Garagarzaroren 22an hasi zuten langileek greba. Horregatik, Gipuzkoako gidari ugari Arbizuko IAT estaziora etortzen hasi ziren duela hiru aste eta lanez gainezka daude. Bi estazioen grebak luze joko duela aurreikusten da.

Garagarzaroen 86 langabe gutxiago

Aurreko hilean 1.842 langabeturakin bukatu genuen Sakanan. Azaroko datuen parekoa da hori (1.835). Ordutik, gora egin zuen langabe sakandarren kopuruak, otsailan 2.021eko errekor tristea lortu arte. Baina martxotik, beherako joera nagusitu da. 1.842 langabebetatik 941 (%51,09, 13 gutxiago) gizonetzkoak dira eta 901 (%48,91, 73 gutxiago) emakumezkoak.

Lan bila ari diren gehienek 25 eta 44 urte artean dituzte: 863 (%46,85, 30 gutxiago). 45 urtetik gorako 778 langabetu sakandar daude (%42,24, 20 gutxiago). Enplegu bulegoan izena emana duten 25 urte baino gutxiagoko 201 sakandar daude (%10,91; 36 gutxiago).

Sektoreei erreparatuta, zerbitzutan lan eginen lukete langabetuen %50,87 (937; 66 gutxiago). Industrian arituko litzateke lan-



Gizona leihoak aldatzeko lanetan.

gabteen %32,79 (604; 19 gutxiago). Eraikuntzan aritzeko %8,52 dago prest (157; bat gutxiago). Lehen sektoreak, berriz, lan eskaeren %1,9

jaso du (35; 5 gehiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez eta lan bila dabiltzanak %5,92 dira (109; 5 gutxiago).

Langabezia udalerrira. Garagarzaroa		
Udalerrria	Guztira	Aldea
Altsasu	906	-46
Arakil	73	-9
Arbizu	82	7
Arruazu	3	0
Bakaiku	18	-3
Ergoiena	14	-2
Etxarri Aranatz	174	-10
Irañeta	12	5
Irurtzun	206	-15
Iturmendi	16	1
Lakuntza	107	2
Olatzagutia	120	-9
Uharteko Arakil	53	-9
Urdiain	33	0
Ziordia	24	2
Guztira	1.842	-86

Prestakuntza gutxiko langabetuendako ikastaroak

Altsasan hiru ikastaro eskainiko dira: gaztelania, matematikak eta teknologia. 75 plaza daude Nafarroako Gobernuak prestakuntza gutxi duten langabetuei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza-

ko titulurik edo baliokiderik ez duten langabetuei zuzendutako prestakuntza saioak dira. Ikastarotetan "prestakuntza klabeak ematen dira, lan mundurako sarbidea errazteko". Izena emateko epea plazak betetzean itxiko da. Ikastarok lau hileko iraupena izanen dute, iraila eta otsaila bitartean. Helduendako inarrizko heziketa zentro publikoan ematen dira.



FLASHMOB • ERRAUSKETARIK EZ!

Uztailak 27, larunbata • 20:00 • Bakaikuko plaza

19:00etan entseguak hasiko dira.



Abestia

Info+: <http://errausketarizeflashmob.wordpress.com>

Koreografia
urratsez
urrats



» Arakil

Itxasperri eta Zuhatzu arakildarren bilgunea



Komuna egin du udalak Itxasperriko ermita ondoan.

Heldu den ostegunean, Santiago egunarekin, Arakilgo ibarrak bere eguna ospatuko du. Aurten Egia-rrerako Itxasperriko ermita eta Zuhatzu izanen dira ospakizunaren erdigune. Udalak eta kontze-

juek antolatutako ospakizuneko herri bazkarira joan nahi duenak igandera arteko epea du txartelak kontzejuetan hartzeko. Helduek 15 euro ordaindu beharko dituzte, haurrek 7 euro (12 urtera arte).

Arakilgo ibarraren eguna. Egitaraua

Itxasperrin

11:00etan Egiarretako plazatik erraldioen konpartsaren jaitsiera Itxasperriko zelaira.

11:30etan Izurdiagako Forjas Brunen artisauro forja erakustaldia.

12:00etan Ermitan Santiago patroiarene omenezko meza. Arakilgo abesbatza ariko da.

12:45ean Omenaldia eta aitortza Jose Javier Zabaleta pilotariari eta 2012an Arakilen jaiotako haurrei.

13:00etan Otamena. Uhartea Arakilgo erraldioen konpartsa, trikitixa eta Orritz dantza taldea.

Zuhatzun

14:00etan Arakilgo margolarien koadroen erakusketa.

14:30etan Txalaparta.

14:45ean Herri bazkaria frontoian.

16:30etan Hodei magoa.

17:30etan Mus, briska eta partxis txapelketak.

17:30etan Puzgarriak eta haur-jokoak Udako Ludotekaren esku.

17:30etan Dantzaldia Iñaki Anduezarekin.

18:30etan Txalaparta.

20:00etan Sari banaketa.

21:00etan Hau pena nik!

» SAKANA

TopaEgunerako gonbitea

Aurten Sorluzen ospatuko du Euskaltzaleen Elkarte mugimendua TopaEguna, irailaren 28an. Euskaltzaleen mugimendua, ekimen honen bitartez, hizkuntza komunitateari, euskaltasunari eta auzolanari egin nahi die gorazarre eta irailaren 28an Sorluzen egingo den jaiaren parte hartzeko deia egin die Euskal Herri osoko euskaltzaleei.

Irailko hitzorduak euskaltzaleen elkarteek urte osoan zehar egiten duten lanarenerakusgarri izan nahi du, Euskal Herri osoko euskaltzaleen arteko harremanetik euskarari eta euskal hiztun komunitateari arnasaldi berri bat eman nahi zaio. Jai giroko egun osoko egitaraua antolatu du mugimendua. Haren parte dira Sakanan Irurtzango Aizpea eta Altsasuko Kima, baita Bierrik fundazioa ere.

» HERRI BAZKARIA

Izena emateko <http://www.topaeguna.org/topaeguna> helbidera jo.

»

Nafarroako Gobernuak mendian eta basoan su egitea debekatu du

Nafarroa Iparraldean, Sakanan, aisialdira egokitutako tokietan egin ahal izanen da

Udako beroekin batera suteak izaten dira albiste han eta hemen. Horiek eragozteko Nafarroako Gobernuak lurzoru urbanizaezinean suaren erabilera arautu du. Horren arabera, mendian edo basoan sua egitea debekatuta dago.

Debeku hori baso aprobetxamenduen edo oihangintzako tratamenduen ondoriozko hondarrak erretzeari luzatzen zaio. Baita nekazaritzako lehorreko lurretan erreketak egitea. Aldi berean, gobernuak sutea sor dezakeen edo zer gauza botatzea edo uztea debekatu du. Material piroteknikoa, globoak edo sua duten edozein motatako gauzakiak erabiltzea ere debekatu du gobernuak, lurzoru urbanizaezinetik 300 metro baino hurbilago dagoenean.

» Ibarren berri Udalbiltzaren webgunean

Euskal Herriko udal eta udal hauetsien biltzarrek, Udalbiltzak, bere webgunea, www.udalbiltza.info, berriuegin du. Besteak beste, erakundeari berari buruzko argibideak, albisteak, argazki eta bideo galeriak eta, Euskal Herriko udalerrri guztien (685) informazio jarri du atari horretan. Horrekin batera, Udalbiltzari edozeinek ekarpena egiteko aukera ematen du.

Udalerrri bakoitzari buruzko honako datuak ematen ditu: eskualdea; herrialdea; mapa bidezko kokapena; biztanleria; herriaren azalera (km²); dentsitatea; errepide bidezko distantzia bere herrialdeko hiriburura, haur eta lehen hezkuntza azpiegitura gertuenera, osasun zentroetako eraikin gertuenera, txikizkako merkataritza establezimendu gertuenera, euskarazko eskaintza duen eskola gertuenera, euskaltegi gertuenera; udal-erretxeko datuak; legegintzako hautetsien zerrendara esteka; herriko udalbiltzakideen atalera esteka; sektorekako establezimenduen banaketa eta Euskal Herriari begira atarira esteka.

Udalbiltzak martxoaren 2an egin zuen berrantolaketaarako batzarra eta hasieratik "gure nazioa zertan den jakiteko eta zabaltzeko helburua" du.

»

Legegintzaldiari errebasoa, eta gehiago

Asteazkenean, 19:30etan Altsasuko foru plazan EHBilduren ekitaldia izanen da

Legegintzaldiak ekuadorra pasa du eta bi urte horien balorazioa egiteko Bilduko udal ordezkariak herri-tarren aurrera agertuko dira asteazkenean, plazan. Horrekin batera, EHBilduko Asun Fernandez de Garaialde Lazkanok eta Victor Rubio parlamentariak hitza hartuko dute. Nafarroako egoeraren inguruan ariko dira, besteak beste, CAN, zentsuramozioa, Barcina, murrizketak, oposizio politika edota aldaketa izanen dituzte hizpide.

» SAKANA

Altsasutik abiatuko da AHTren kontrako bizikleta martxa desobeditzailea

AHT eta azpiegitura-lan handiak gelditu eta ekonomia-zein gizarte-jardueren ardatz gisa herria eta eskualdea jarriko dituen eredu desberdin baten sorrera aldarrikatuko dute

Sakanatik abiatu eta Araba eta Gipuzkoako herriak zeharkatu ondoren agorrilaren Iean Donostian bukatuko da Mugitu! Mugimendua (M!M) antolatutako martxa. *Lurraren alde, mugitu eta eragin!* lelopean parte-hartzaileek Abiadura Handiko Tren (AHT) egitasmoak salatuko dituzte. Horretarako, pedalei eragiteaz aparte hainbat jarduerara iragarri dituzte. Esaterako, ostegunean martxa abiatu bezain laster, Olatzagutian, errausketaren kontrako 3 Mugak Batera plataformako kideekin batzartuko dira.

Amalurraren defentsaren aldeko mezua zabaltzearekin batera M!Mko kideek "ekonomi krisi garaian Hego Euskal Herrian AHTko obretan 10.000 euro xahutzea" salatuko dute; "zifra horiek



AHTren kontrako martxaren aurkezpena. UTZITAKOA

ulertezinak dira, jende ugari kale gorrian dagoela ikusita". Mugimenduko iritziz "azken aldian egitasmoaren zentzugabekeria ageri-agerian gelditzen ari da". Horregatik, "krisi sozio-ekonomikoaren eta hondamendi ekologikoaren larritasunaren aurrean norabidez aldatzea" eskatu dute.

Mugituko kideek gizarte krisia

ere aipatu zuten martxaren aurkezpenean: "eskubide sozialak murriztuz doaz. Hori dela eta, AHTren aurkako borrorak egungo jendarte eredu aldatzea aldarrikatzen duten mugimenduekin bat egiten du, hain zuzen ere, AHTren atzean dagoen garapen eredu jasangaitza eta kapitalista zalantzan jarritz".

HIJOS DE GOIKOETXEA

EDARI BANATZAILEA

Festetako zerbitzu osoa eskaintzen dugu

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es



maríaeugenia
Arrainak

www.pescaderiamariaeugenia.com

Abuztuan arratsalde itxita

Lortu deskontuak gure txartelarekin!



Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725

Iturgintza
Berogintza
eta Gas



PEIO

659 286 344

» Olatzagutia

CPVk porlan saileko 166 langile kaleratuko ditu

916 langiletik aurreikusitako 227ak baino 61 gutxiago izanen dira. Olatzagutiko porlandegitik zenbat izanen diren zehazteko dago, 29 aurreikusi ziren

Asteazken iluntzean sinatu zuten Enplegu Erregulazio Espedienteko (EEE) aurre-akordioa Cementos Portland Valderrivasek (CPV) eta CCOO, UGT eta USO sindikatuek. Langileen batzarrek berretsi behariko dute akordioa (Olatzagutian aldeko 51 boto, 21 kontrako eta 6 abstentzio). Hala egingen balute asteartean sinatuko litzateke akordioa. Ordurako zehatz jakinen daren bat diren kaleratuak Olatzagutian.

Kaleratzeak irailaren 30erako egingen lirateke. Postuen arabera enpresak kaleratzea atzeratu dezake, baina abenduaren 31rako 166ak kaleratuak izanen lirateke. EEE aurkeztu zuenean, CPVk iragarri zuen hura indarrean jarri ondoren neurri gehiago hartuko zituela, besteak beste: lan egutegia egokitzeko aldi baterako kontratuak eteteko enplegu erregulazio espediente eta soldaten murrizketa.

Kalte-ordainak

Kaleratuak izanen diren 166 langileak joan zen urtean kaleratu izan



Porlandegiaren ikuspegi bat.

ziren langileen baldintza berdinekin kaleratuko dituzte. Horren arabera, 58 urte baino gutxiago eta 28 urte baino gutxiagoko antzinatea dutenak lan egindako urte bakoitzeko 28 eguneko kalte-ordaina jasoko dute, 18 hilabeteko mugarekin. Gainera, 2.000 euroko kopuru lineala. Kopuru hori ez zaie emanen kontratu erreleboan ari direnei.

58 urte baino gutxiago eta 28 urte baino gehiagoko antzinatea du

na duten langileek lan egindako urte bakoitzeko 30 eguneko kalte-ordaina jasoko dute, 22 hilabetera mugatuta. 55 urterekin kaleratuak direnak 4.000 euroko prima bat jasoko dute. 3.000 eurokoa izanen da 56 urtekoen kasuan eta 2.000koa 57 urte dutenendako.

58 urte edo gehiago dituzten langileek gehienez 38 hilabeteko kalte-ordaina jasoko dute, 165.000 euroko topearekin. Olatzagutiako

porlandegian joan den urtean atara ziren adin hori edo gehiago zuten langileak. Orain 6 besterik ez daude. Postuaren arabera, 55 urtetik gorakoek boluntarioki joateko aukera ere onartu dute, CPVk jubilatutako bitartean kotizazioa ordainduko lioke. Espedienteak kaltetutakoak birkokatzeko lan poltsa sortuko da. Horrekin batera, espedientearen gauzatzea segituko duen mahaia sortuko dute.

Adierazpenak

Negoiazio mahaian ordezkariek dituen CCOOtik adierazi dute "enpresaren asmoak txikitze-ko arlo guztietan lan egin dugu, ahalik eta kaleratu gutxienegeto eta kaleratuak direnak ahalik eta baldintza onenak izan ditzaten".

UGTtik azaldu digute sekula ez dela pozgarria kaleratuak dituen akordio bat babestea. "Akordio honen alternatiba EEE zen". Negoiazioan ahalik eta kaleratze gutxienegeto eta kaleratuak ahalik eta baldintza onenetan joateko borrokatu dutela nabarmendu dute UGTkoek, eta legeak aurreikusitako gutxienegeto kalte-ordaina bikoiztu dela nabarmendu dute.

ELAko ordezkariek akordioaren kontra bozkatu zuen (CGTk ere), kaleratzeak ez dituztelako onartu eta langileen ordezkariek proposamena CPVk bere egin ez duelako. Horren arabera, akordioa sinatu ondoren, lantegi bakoitzean kaleratze traumatikoak eragozteko enpresa batzorde bakoitzak aukera luke langileei proposamenak egin eta denen artean EEEren karga banatzeko.

» Altsasu

Borobila ixteko, bide berriak

Agorrietik aurrera Basoixi eta Usolarrain artean, basoan lasai asko ibiltzeko aukera izanen da. Udalak bi dermio horietan San Pedro Zelairerain lotuko dituen ibilbide borobila osatuko baitu. Horretarako, Usolarrain, Etxarte eta San Pedroko erreka zeharkatzen duen bidea prestatuko du. Bidearen aurreneko zatia, Basoixin barna Dantzaleku eta San Pedro Zelai lotzen dituen, 2009ko uda akaberarako erabilgarri zegoen.

Coyser enpresak lanak hilaren 10ean hasi zituen. Lanek 9.890,02 euroko aurrekontua dute. Km 1 luze eta 1,5 metro zabal izanen du zati berriak. Ofitaz egingo izanen da. San Pedroko erreka pasatzeko zubia egingo da. Lastailean eta azaroan Auzolan Taldeak bide bazte-



Dantzaleku izanen da oinezkoen irteera eta helmuga.

rrak garbitu zituen.

Hariztiaren interpretazio bidea

Apirilaren 20an Altsasun basoaren interpretazio ibilaldia egingo zen. Albaola elkarteak kideek gidatu

tuta ontzigitan erabiltzeko basoak nola kudeatzen ziren erakutsi zuten. Ibilaldi hartan sortu zen halako ibilbide bat sortzeko ideia. Ibilbide motza litzateke, Dantzalekura iritsi aurretik dagoen alda-

Etixerako egur loteen eskaera ugari

Heldu den asteazkenean egingo da zozketa, 12:00etan, lortia kuitur gunean

Etxeetarako banatu behar diren lote kopurua (150) baino askoz eskerra gehiago (238) jaso ditu Altsasuko Udalak. Haien baloratu ondoren (199 onartu), udalak zozketa ekitaldian aldaketa batzuk egitea erabaki du. Horren arabera, lotea jasotzeko eskubidea izateko eskatzaileak ez du nahitaz zozketan egon behar. Horrekin batera,

zozketa egin ondoren, loteak jaso dituzten pertsonen izenak eta itxaron zerrendan gelditzen diren herri-tarren ordena argitaratuko dira Udalaren iragarki oholean. Lotea eskuratu dutenek zozketa egunean edo hurrengo hiru egunetan (garilaren 30era arte) ordaindu ahaliko dute. Tasa ordaindu arte ez da lotea emanen (ez informazioz ez dokumentazioz) eta ordaintzen ez duenak loteari uko egingo dio. Azken horien lotea itxaron zerrendan dauden altsasuarrei emanen zaie, zozketako hurrenkera errespetatuz.

pan, ezkerretako bide batetik abiatuko litzateke eta Usolarrainen bukatuko litzateke.

Bidean ontzigitzarako basoen kudeaketarako adibideak emanen lirateke zuhaitz jakinen bidez.

Albaola elkarteak prestatuko luke proiektua eta eraiki behar duen San Joan baleontziarekin lotura izanen luke. Bide horrekin Udalak Dantzaleku-Usolarrain aisialdi guneko eskaintza indartuko du.

Amaya
Okindegi-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua

Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185

- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



ALTSASU



OLAZTI

948 468 755



ETXARRI

948 461 660

FESTAK

Irurtzun:



>> Garilak 19, ostirala

10:00etan Dianak (trikitixak).
10:00etan Pilota, Irurtzun eta Bi Aizpe klubek antolatuta.
11:30ean Erraldoi eta Buruhandien konpartsa.
11:30ean Herri kirolak (helduak) Foruen Plazan. Bertan eman behar da izena.
12:00etan Sienta la Cabeza. Ile-apaindegi artistikoko ikuskizuna, musikaren eritmoan emana.
14:00etan Kalderete lehiaketaren erabakia. Arkupeetan eman beharko da izena, 11:30ak arte (12:00etan ogia eta ardoa banatuko zaizkie izena eman dutenei).
14:30ean Kaldereteen herri bazkaria.
16:00etatik 20:00etara Parkea: Izan pultsua, puzgarriak. Gernika plazan.
17:30ean Noeren arka: Gorriti eta bere animaliak. Gernika plazan.
19:30ean Ikuskizuna: Jean Philippe Atchoum (magia, umorea, antzerkia). Foruen plaza.
20:30ean Dantzaldia. Plan B eta Disco Live Show orkestrekin.
22:00etan Larrain dantza.
22:25ean Zenezuzkoa eta buruhandiak. Kultur Etxean hasi eta Gernika parkean despeditu.
22:30etik 1:00etara Gau aktiboa: Video Games Party, bideo jolasak, Wii kontsolak, Play Station 3, Berria: Kinder Dantza...(10 eta 18 urte bitarteko gazteek izanen dute lehentasuna). Pilotalekua-plazan.
00:00etatik 4:00etara Dantzaldia Plan B eta Disco Live Show.

>> Garilak 20, larunbata

10:00etan Dianak (akordeoiak).
11:45ean Patxin Patxin. Txangoal Euskarazko ikuskizuna. Plazan.
13:00etan Vermuta, Chuchin Ibañez y Los Charros taldearekin.
14:30ean Erretiratuaren bazkaria. XXV. Urtemuga. Jarraian dantzaldia.
17:30ean Herri kirolen jaialdia.
19:00etan Pilota, amateurak. Sarrera doan.
19:30ean Ikuskizuna: Txarlestrop. Zirika Zirkus. Zirkuia, antzerkia eta umorea. Foruen plazan.
20:30ean Abiba diskojaia.
22:00etan Larrain dantza.
22:25ean Zenezuzkoa eta buruhandiak. Kultur Etxean hasi eta Gernika Parkean bukatuko da.
00:30etik 5:00etara Abiba diskojaia.

>> Garilak 21, igandea

9:00etan Dianak (gaitariak).
11:15ean Erraldoi eta buruhandien

Barazkigunea

>> Garilak 19, ostirala

14:30ean Gazteok ere kalderetera!
17:00etan Elektrotxaranga, txosnetatik hasita.
19:00etan Karaokea Barazki Plazan.
23:30ean Kontzertuak: Gaur Ez eta Sorginen Zerrautsa.

>> Garilak 20, larunbata

7:00etan Kalejira "gurdi musikalarekin".
17:00etan Mus eta partxis txapelketa (5 euro bikoteko. Apuntatzeko 16:30etik 17:00ak arte).
22:30ean Afari herrikoia herriko plazan. (Gazte eta langabetuek prezio berezia. Antolatzailea: Herrira).
23:30ean Kontzertuak: Proyecto Pez, ZTK Rap, Skapada eta Izan Nauk.

*Antolatzailea: Irurtzungo Herri Mugimendua.

Larrazpi

>> Garilak 19, ostirala

10:00etatik aurrera Kontzertuak: Akort (Gares), Star Luxe (Iruña), Sykorax (Lekunberri). DJ-ak: Igor Txustarra2 + Koke vs Gordon. Sarrera doan.

>> Garilak 20, larunbata:

Electro-Techno gaua
10:00etatik aurrera Nöle (Enox-DJ Z) + Victor M (Dual Effects), Mr Loops (Gasteiz) + Revoragass (Evoratech & Rafagass), Animatek (Txapaotsa) + ISS (Arriza Vs Gordon) Oktopus (Petrako). Sarrera doan.

konpartsen kontzentrazioa.

12:00etan Meza.
14:00etan Erraldoi eta buruhandien konpartsa agurra.
18:00etan Irurtzungo dantzari txikien eskolaren emanaldia (plaza).
18:30ean Eskorgen kronoeskalada.
19:30ean Dantzaldia Egan orkestra.
22:00etan Larrain dantza.
22:25ean Zenezuzkoa eta buruhandiak. Kultur Etxean hasi eta Gernika parkean bukatuko da.
22:45ean Barrikote (txorizoa sagardotan, txistorra, txingarra, sagardoa...).
22:45etik 1:00etara Dantzaldia Egan orkestrarekin. Gaixoa Ni.

Iturmendi:

>> Garilak 19, ostirala. Gaztearen eguna

11:00etan Kalderetearen osagaien banaketa.
14:00etan Kalderete eta mozorro lehiaketa.
14:30ean Kalderete bazkaria frontoian.
17:30ean Kalejira txarangarekin eta janari bilketa.

18:00etan Bordetxe abereen zirkoa.
22:00etan Afari herrikoia frontoian.
24:00etan "Los zopilotes txirriaos" musika taldea eta DJ Serguey.

>> Garilak 20, larunbata.

Haurren eguna
11:00etan Haur-jolasak Jokulandiarekin: bonba japoniarrak, puzgarriak...
17:00etan Txirindulari eskoletako

lasterketa.
22:00etan Afari herrikoia frontoian.
24:00etan Traka eta "Hau pena nik". Arratsaldean eta gauean musika Tximeleta taldearekin.

*Egunero auzatea (eguerdian eta arratsaldean), buruhandiak, bonba japoniarrak eta argidun zezentxoak.

Bakaiku:

>> Garilak 24, asteazkena

17:30ean Pilota partiduak Iturrarte Pilotalekuan.
 -Umeak: Aingeru-Xanti vs Unai-Igon
 -Gazteak: Otxoa-Lazkoz vs Ansotegi-Igoa
 -Helduak: Bakaikoa-Lopez de Zubiria vs Errandonea-Otamendi
19:30ean Herriko festen hasierako etxajua.
20:00etan Bakaikuko zortziko eta jarraian auzatea, herriko musikariak girotua, ehiztarien eskutik.
20:30ean Preso eta iheslarien askatasunaren aldeko brindisa.
22:00etan Herrira afaria. Preso eta iheslariak herrira!
00:30ean Kontzertua losu Ion y mas taldearekin.

>> Garilak 25, osteguna

10:00etan Dianak trikitaliarekin.
12:00etan Eskulan tailerrak haurrentzat, eskolako belardian.
12:30ean Santio meza.
13:00etan Sakanako Aizkolari Eskolaren eta harrijasotzaileen erakustaldia.

Herri mugimenduaren programa

>> Garilak 24, asteazkena:

Herrira eguna
17:30ean Haurrendako jolasak.
18:30ean Triki-poteoa: Preso eta iheslariak herrira! Jantzi euskal preso eta iheslariak Bakaikuko jaietara kamiseta. Plazatik.
19:30ean Preso eta iheslarien askatasunaren aldeko brindisa plazan.

17:30ean Bakaikuko 9-16 urte bitarteko gaztetxoaren arteko herri kirolak Plazan.
19:00etan Elai Alai Dantza taldea.
20:30etik 22:00etara eta 0:30etik 4:00etara Dantzaldia Gabenara taldearekin.
 *Oharrak:
 -Auzatea egunero 13:00etan eta 20:00etan.
 -Herriko jostunen eta Bakaikuko Zortziko-

22:00etan Herrira afaria. plazan. Gauean DJ festa BGaren tabernan.

>> Garilak 25, osteguna

20:00etan Txorizo-jatea auzatean. Barcina kanpora! Aldaketa politikoa eta soziala orain.
20:00etan Asto proba eta porra. Astoa hor kaka non? Hor konpon!
03:30ean Gaueko jolasak. Plazan.
Antolatzaileak: Bakaikuko Gazte Asanblada, Herrira, 3mugak batera eta Ezker Abertzalea.

ren inguruko erakusketak Udaletxeko goiko aretoan (uztailaren 25etik aurrera, 19:30etik 21:00etara).
 -Bonba japoniarrak egunero, 20:00etan.
 -Zikiri afarirako tiketak Koxkon eta Estankoan salgai 18 eurotan, uztailaren 25era arte.

Olatzagutia

>> Garilak 25, osteguna

9:30ean San Migel-Sutegi elkartearen XLII. Pilota Txapelketa. Aurrebenjaminak- 22 urtez azpikoak. Sari banaketa. Antolatzailea: San Migel Elkartea.
10:30ean Futbito txapelketa. 3. eta 4. postuak. Futbito pistan. Antolatzailea: Maisuenea Gaztetxea.
11:00etan Hamaitetako lan taldeentzako parte hartzaile guztientzako eta udal langileentzat Kultur Etxean.
12:00etan Santa Anaren omenezko festak iragartzeko suziria Kultur Etxean. Kalejira erraldoi eta buruhandiek. Buruhandi berriak. La Cigarra txarangarekin. Zapi banaketa aurten jaiotako haurrei.
12:30ean Futbito txapelketaren finala futbito pistan. Antolatzailea: Maisuenea

Gaztetxea.
17:00etan San Migel elkartearen XLII. Txapelketaren finalak: 3. maila, 2. maila, 1. maila, afizionatuak eta afizionatuen eliteak. Jarraian sari banaketa. Antolatzailea: San Migel Elkartea.
18:30ean Txan magoa: Ezer ez da dirudiena. Sarasate plazan.
20:00etatik 22:00etara Musika San Migel plazan Lisker taldearekin.
20:00etan Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan San Migel plazan. 21:00etan Bonba japoniarrak Intsumisioaren plazan.
22:00etan Zenezuzkoa.
00:00etatik 03:00etara Musika San Migel plazan Lisker taldearekin.

Beste ekintza batzuk

>> Garilak 24, asteazkena:

Gazte eguna (kaseroz jantzita)
12:00etan Txupinazoa Gaztetxean. Antolatzailea: Maisuenea Gaztetxea.
14:30ean Bazkaria Maisuenea gaztetxean, gaztetxeak antolatuta.
 Ondoren kalejira Sakanako Txarangarekin.
20:00etan Kontzertua: "Iosu Ion Imas". San Migel plazan (euria eginez gero Gaztetxean). Antolatzailea: Maisuenea.
 >> **Garilak 25, osteguna**
13:00etan Preso eta iheslarien brindisa txoznan. Antolatzailea: Herrira.
22:00ean Okupazioaren aldeko afaria gaztetxean. Antolatzailea: Maisuenea.

KOTXKO Taberna

Ongi pasa festetan!

948 562 607
627 585 414

Bideberrialde
Bakaiku

Ongi pasa festetan!

AGIRRE
Altzariak • Aroztegia

948 562 262 • Portuko kalea 19
Urbasa bideg. • OLAZTI

HARATEGIA

Ongi pasa festetan!

Kale Nagusia, 50
OLAZTI
948 562 858

SEGA

MITXELENA GIPUZKOAKO BIGARRENA:
 Igandean Gipuzkoako Nazioarteko Erako
 Sega Txapelketa jokatu zen Zizurkilen. Li-

 zaso gailendu zen (2:56), Altsasun bizi den
 Bixente Mitxelenari 16 segundo aterata
 (3:12)

Aizkora

Txapelak ihesi

LARRETXEAREKONDO NAGUSITU ZITZAIZKIENEN NAZABAL-ERASUNI
Nafarroako Binakako Aizkora Txapelketa

- | | |
|--------------------------------|-------|
| 1. Larretxea-Rekondo | 22:04 |
| 2. Nazabal-Erasun | 22:18 |
| 3. Senosiain-Lopez Azpilikueta | 25:18 |

Igandean Nafarroako Binakako Aizkora Txapelketa jokatu zen Iruñean, sanferminetan. Hiru biko aritu ziren: Jon Rekondo-Donato Larretxea, Antonio-Senosiain-Juanjo Lopez Azpilikueta eta Floren Nazabal-Ander Erasun. Bikote bakoitzak 12 enbor erdibitu behar zituzten: 6 kanaerdiko eta 6 60 ontzako.

Gozatu ederra hartu zuten zaleek, final dotore eta ikusgarria izan baitzen. Beroari aurre eginez, Erasunek eta Nazabalek hasieratik hartu zuten aurrea, baina Larretxea-Rekondo oso gertu zituztela. Senosiain eta Juanjo Lopez hasieratik geratu ziren atzean. Beroak estutu zuten arren, erritmo berberari eutsi zioten Erasunek eta Nazabalek, eta, gauzak ongi, txapeldun izango zirela aurreikusten zen. Baina azken enborrean ezustekoa gertatu zen. Larretxeak eta Rekondok abiadura azkartu eta irabaztea lortu zuten (22:04), Nazabali eta Erasuni 14 segundo eskas aurreratuta (22:18). Oso gutxigatik, baina Nazabali eta Erasuni azken txanpan txapelak ihes egin ziren.


Nazabal eta Erasun.

Kadeteen trontza txapelketa ez da Sakanara etorri

Ostegunean Nafarroako Kadete Mailako Trontza Txapelketa jokatu zen. Hiru biko aritu ziren, horietatik bi Etxarriko Andra Mari ikastolakoak, Garat Flores-Adrian Joao eta Gari Satrustegi-Izai Mauleon. Basaburua-Baztaneko Eneko Irigoien-Ekaintz Maritorenaren azken bikoia. 100 zentimetroko enborrari 10 epai moztu behar zizkioten.

Txapeldunak, merezitasun handiz, Eneko Irigoien eta Ekaintz Maritorenaren izen ziren (4:31). Minutu pasako alde atera zieten Gari Satrustegi-Izai Mauleoni (5:54), Garat Flores eta Adrian Joao izan ziren azkenak (7:05).

Waterpolo

Waterpolo Etxarrin

Mank-eko kirol zerbitzuak, Etxarri Aranazko kanpinaren laguntzarekin, waterpolo jardunaldia antolatu zuen asteartean. Olaztitik, Etxarri Aranaztik, Altsasutik eta Uhartetarako hurbildutako 24 hurrek eta 4 begiralek hartu zuten parte, oso gustura. Bukaeran ogitartekoak eta zukuak banatu ziren.

Igeriketa txapelketarik ez

Mank-eko kirol zerbitzuak aurten ez du udako igeriketa txapelketarik antolatuko, parte-hartzean barren jaisten ari zelako.


Gustura aritu ziren. UTZITAKOA

Saskibaloia

Street basket Altsasun


Gaur, ostiralean, 16:30ean Altsasuko gaztetxeako plazoletan

Altsasuko Gazte Asanbladak Altsasuko Gaztetxeako 6. Street Basket Txapelketa antolatu du gaur, garilaren 19an, ostiralean, 16:30etik aurrera.

Aipatu kalesaskibaloitxapelketan hiru pertsonako taldeak osatuko dira eta izena ematen duten taldeak euren artean lehiatuko dira. Talde bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu. Giroa ziurtatuta dago Altsasuko gaztetxean 6. urtez errepikatzen den saskibaloia jaialdian.

Piragua-espeleologia


Piraguetan.

Udan piragua eta espeleologia Sakanan eta familian egiteko aukera

Piragua ikastaroa Arbizu edo Uhartetarako ibaian burutuko da, eta espeleologia ikastaroa Urbasako Laminatutu kobazuloan, biak uztailearen 28an

Udako oporretan ez aspertzeko aukera paregabea eskaini du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak: piragua ikastaroa eta espeleologia ikastaroa Sakanan bertan eta familian egiteko aukera. Aipatu bi ikastaroak uztailearen 28an burutuko dira, igandearrekin. Piragua ikastaroa goizeko 10:00etan egingen da, Arbizun edo Uhartetarako ibaian. Aldiz, espeleologia ikastaroa Urbasako Laminatutu kobazuloan egingo da, 16:00etan.

Kaxkardi elkarteak monitorea izango dute aipatu ikastaroa emateko ardura. Ikastaroa familian edo bakarrik egin daiteke, eta 8 urtetik aurrerako partaideak onartuko dira. Antolakuntzatik adierazi digutenez, piragua edo espeleologia ikastaroen artean aukeratu daiteke, edo nahi duenak biak egin ditzake.

IZENA EMATEKO

Uztailearen 23ra arte, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.com). Prezioa: 5 euro piragua ikastaroak eta 5 euro espeleologia ikastaroak.

Atletismoa

Javi Moreno Trintxerpen txapeldun

Igandean XXIV. Trintxerpe-Paisaia krosa jokatu zen, Julio Montoya Memoriala, 5 km-ko lasterketa gora-beheratsua. 44 korrikalariren artean Javi Moreno altsasuarrak izan zen txapelduna (16:37), Roberto Monteiro bigarrenari 2 segundo aterez.


Moreno podiumean. UTZITAKOA

Mendi lasterketak

Rubiok eta Larrañagak Ehunmilak gogorra despeditzea lortu zuten

GAINONTZEKO SAKANDARRAK ERRETIRATU EGIN BEHAR IZAN ZIREN

Oso oso gogorra. Horrelakoa da Ehunmilak ultra trail proba. Beasain irteera eta helmuga puntu duen mendi lasterketa ostiralean abiatu zen. 268 korrikalarik hartu zuten irteera eta mendiz mendi 168 km eta 11.000 metroko desnibel luze eta gogor zituzten aurretik. Besteak beste, Izazpe, Erlo, Ernio, Txindoki eta Aizkorri mendiak gainditu behar izan zituzten. Probak berezko duen gogortasunari eguzkia eta berotzarra gehituta, Ehunmilak proba infernu bilakatu zen. Horren isla, 268 korrikalariek soilik 81 heldu ziren helmugara.

Imanol Aleson azkoitiarra izan zen azkarrena, ibilbidea egiteko 23 ordu lanean egon eta gero. Haren atzetik joan ziren iristen, gutxika, 168 km-ak osatu zituztenak. Emakumezkoetan Nerea Martinez iruindarra gailendu zen (28:07:57). Bestalde, aipatzekoa da Patxi Rubio eta Arantzazu Larrañaga uhartearrek proba despeditzea lortu zutelara, 39 ordu baino

gehiago lan eginez. Rubio 74.a izan zen (39:11:02) eta Larrañaga 75.a (39:11:15). Tamalez, proban irteera hartu zuten beste sakan-darrak erretiratu egin behar izan ziren. Jone Pelaezek Ametzetan utzi zuen proba, 21 ordu t'erdiko denbora zeramanean. Javier Ignazio Gonzalezek ere toki berean utzi zuen proba, 22 ordu lanean zeramatza. Jose Julian Lopezek 22 ordu pasa zituela utzi zuen proba, eta Francisco Javier Rodriguezek, aldiz, 4 ordu pasa zeramatzean.

Iradi Goierriko 2 Handietan

Ehunmilak probarekin batera, Goierriko 2 Handiak proba laburragoa prestatzen dute, 88 km eta 6.500 metroko desnibela). Helmugara iritsi ziren 233 korrikalariekatik Iñaki Catalan nagusitu zen (11:05:07). Hainbat sakandarrak hartu zuten parte, baina soilik Jorge Iradi altsasuarrak lortu zuen proba despeditzea (18:00:07), 118. postuan heldu eta gero.


Arantzazu Larrañaga.

Gomez 10.a Soraluzen

Soraluzek II. Iñaki Ruiz Mendi Lasterketa hartu zuen igandean, 21 km-ko mendi lasterketa. 167 korrikalarik hartu zuten parte eta Oier Ariznabarreta izan zen azkarrena (1:35:32). Altsasuarrak aurrean izan ziren. Francisco Javier Gomez 10.a heldu zen helmugara (1:50:40), Juantxo Arregi 19.a (1:57:42) eta Juan Carlos Gomez 66.a (2:11:25).

Mendia



Mendizaleak Bargainera

Igandean LIII. Bargagaingo igoera antolatu du Altsasuko Mendigoizaleak klubak

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak igandean LIII. Bargagaingo Igoera antolatu du. Klubak, mendizaleak bertarajoateko gonbita egin du. Igoera, aldi berean, XLIII. Mendi finalista izango baita.

Igandean, goizeko 9:00etan jautikiko dute suziria, Bargainera abiatzeko. 9:30ean hamarretako egingo dute gazteluan, eta behin Bargainera igota, goizeko 11:00etan meza izanenda. Ondoren, eguerdian, auzatean bilduko dira finalista guztiak eta mendi ibilbiderabatuko diren guztiak. Denboraldian egindako mendi igoerenerrepaso egingen dute, mendizaleak, orogarriak jasoz. Altsasuko erromeria guztietan bezala, ez da zortzikorik faltako. 13:30ean eta txoko guztiak garbi-garbi utzi ondoren, Altsasura jaitsiko dira.

Txirrindularitza



Eskolen lasterketa bihar Iturmendin

Burunda Txirrindularitza Klubak antolatuta, bihar, garilaren 20an, larunbatean, eskolen kategoriako txirrindularitza lasterketa jokatu da festetan murgilduta dagoen Iturmendin, 17:00etatik aurrera. Lehenik eta behin, txirrindulariek ginkana gainditu beharko dute eta, ondoren, lasterketaren txanda helduko da. Proba Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria da. Iturmendi irteera eta helmuga izanda, 1,5 km-ko zirkuitua prestatu du antolakuntzak. Promesek itzuli bat eman beharko diote zirkuituari, hasiberrien lehengo urtekoek bat, hasiberrien 2. urtekoek 2, kimuen lehen urtekoek 3 eta kimuen 2. urtekoek 4. Bukatzeko, haurren mailako lehen urtekoek 8 itzuli osatu beharko dituzte eta haurren 2. mailakoek 10. Bukaeran, sari ematearen ondoren, bapo merendatzeko aukera izango dute txirrindulariek.

ANTZUOLA SARIA RURAL KUTXAKO RUBIORENDAKO

Afizionatuen mailako Rural Kutxa talde sakandarreko Diego Rubiok irabazi du Antzuolako Saria. Horrela, denboraldiko 17. garaipena lortu du Sakanako taldeak. Etaparen bukaeran Rural Kutxako Diego Rubiok eta beste bi txirrindularik ihesegin dute eta Rubio izanda azkarrena, azken metroetan erasoia jo eta bi kideak atzean utzi eta gero.

ERBITI TOURREAN

Movistarreko Hiriberriko Imanol Erbitik Chris Froome jaun eta jabe den Tourrean jarraitzen du. Igandean despedituko da proba.

Triatloia

Bihar Sakanako XI. Haur Triatloia

URDIAINGO IGERILEKUETAN JOKATUKO DA, 10:30ETIK AUERRERA, LARUNBATAREKIN

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, hainbat entitateen laguntzarekin -Sakanako Triatloi Taldea, Urdiaingo Aitziber elkarte, Urdiaingo Udala eta Nafarroako Triatloi Federazioa- Sakanako XI. Haur Triatloia antolatu du bihar, garilaren 20an, larunbatean, Urdiaingo igerilekuan. Goizeko 10:30etik aurrera, triatloi proba politez gozatzeko aukera izango da Urrizti eta San Pedro paraje ederretan. Aipatu probak Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak dira.

Parte hartzeko aurretik izena emana beharraz gozen www.navarrratriatlon.com web gunean. 100 inskripzio inguru daude eginda. Iaz 105 triatleta aritu ziren guztira, horietatik 28 sakandar. Igeriketa probak Urdiaingo igerilekuan jokatu dira, eta bizikleta probarako zirkuitu ederra prestatu dute Urdiaingo igerilekuetako bidetik abiatu eta Sarabe parajearen barna. Korrika egiteko ere zirkuitua antolatu dute igerilekuetatik gertu.



Urdiaingo paraje zoragarrietan jokatu da Sakanako Haur Triatloia.

Proben distantziak

Aurre-benjaminak (05-06): 10:30ean (25 m igeri, 1 km txirrindula, 200 m korrika)
Benjaminak (03-04): 10:50ean (50 m igeri, 1,5 km txirrindula, 300 m korrika)
Kimuak (01-02): 11:10ean (100 m igeri, 3 km txirrindula, 500 m

korrika)
Haurrak (99-00): 11:30ean (200 m igeri, 6 km txirrindula, 1.000 m korrika)
Kadeteak (97-98): 12:00etan (300 m igeri, 9 km txirrindula, 2.000 m korrika)
Juniorrak (95-96): 12:00etan (300 m igeri, 9 km txirrindula, 2.000 m korrika)

21 gazte triatloian sakontzen

AITOR MOZO, URKO BERDUD ETA MIKEL LAKUNTZA DITUZTE IRAKASLE

Astelehenean hasi zen udako triatloia campusa. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu du, Sakana Triatloi Taldearen, Atabo Altsasu S.L. ren eta Nafarroako Kirol Institutuaren laguntzarekin. Astelehenean hasi zen eta gaur despedituko da.

Udako Triatloi Campusean izena eman duten 21 neska-mutikoak goizeko 11:00etatik 13:00etara aritzen dira triatloian trebatzen. Igeriketa Altsasuko Zelandi kirolde-

gian lantzen dute eta txirrindula eta atletismoa, aldiz, kanpoan. Hiru dira monitorea: Sakana Triatloi Taldeko Aitor Mozo, Urko Berdud eta Mikel Lakuntza. Atletismoa, igeriketa eta txirrindularitza elkar-tzen dituen jarduera horren nondik norakoak lantzen gustura dabil-tza, teoria eta praktika uztartuz. Hala nahi duten gazteek ikasitakoa larunbatean Urdiainen jokatu-ko den Sakanako XI. Triatloian erakus-teko aukera izanen dute.

Partaideak



Xabier Borrega Arnedo, Oihane Lakuntza Zelaia, Hego Lakuntza Zelaia, Javier Morras Jorge, Leire Maiza Razkin, Patxi Calleiras Benito, Oihan Vinagre Diego, Unai Villalobos Hernaz, Ander Villalobos Hernaz, Aitor Salinas Redondo, Naroa Lizarraga Goikoetxea, Eider Arakama Madina, Jon Navarro Fresneda, Oier Berastegi Fernandez de Garaialde y Lazkano, Erik Gonzalez Martin, Javier Diaz Celaya, Ane Gil Aldasoro, Ander Chamorro Aldasoro, Maitane Anton Elizalde, Eider Tiscar Lopez eta Aitor Galbete.

Bazkide zozketa



GARILEKO SARIAK:

1- ZALDI IBILALDIA 2 LAGUNTZAT ETA EKAIN BERRIRAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA
 2- EKAIN BERRIRAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOREN CDA

3- ESNE BEHIEN INTERPRETAZIO ZENTRURAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOREN CDA
 4- ESNE BEHIEN INTERPRETAZIO ZENTRURAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOREN CDALIBURUA

Non erabili

Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

MARTIARENA GAZTANDEGIA

UHARTE ARAKIL % 5eko deskontua.

BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan % 10eko deskontua.

NORTE ERLOJUDENDA ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta

aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDAIAZPIKOAK

LAKUNTZA 50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

URREZKOA BITXIDENDA

IRURTZUN Bitxietan 100 €KO erosketa egitean, %15eko deskontua.

KIROLDEGIKO TABERNA

ARBIZU Bazkarietan edo afarietan kopa doan.

URRUTIA HARATEGIA IRURTZUN

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

LURESU

ALTSASU % 10eko deskontua eskaintza berezieta enkarguetan izanez ik.

Motoziklismoa

Alemaniako esperientzia

ALEX MARIÑELARENA MUNDUKO TXAPELKETAN ARITU ZEN. LURRERA ERORI ETA EZIN IZAN ZUEN PROBA BUKATU, BAINA "HARTUTAKO ESPERIENTZIAREKIN" GERATZEN DA

Igandean Alemaniako Moto GP Sari Nagusia jokatu zen Sachsenringzirkuituan, Munduko Txapelketako proba. Gonbidatu edo wild car bezala Alex Mariñelarena aritu zen (Targobank Motorsport, Suter). Aragoiko taldearekin lehiazten den pilotu irurtzundarra hirugarren aldiz aritu zen Munduko Txapelketako proba batean, eta helburua esperientzia hartzea zen. Tamalez, Alexek ez du zortea alde izan, erorikoa izan baitzuen.

"Asteburu oso konplikatua izan da. Ez genuen zirkuitua ezagutzen eta mundialean Dunlop gurpilak erabiltzen dituzte, guk ezagutzen ez ditugunak, Michelin etxeak erabiltzen ditugulako. Horregatik, motorra puntuan jartzeko arazak izan ditugu eta horrek askozaildu dizkigu gauzak" adierazi du Alex Mariñelarenak. Entrenamenduetan lurrean bukatu zuen irurtzundarrak, eta lasterketan baita ere. "Hirugarren itzulian, helmugara sartzeko bihurtunean, atzeko gurpila joan egin zait eta lurrean bukatu dut. Lasterketa bukatzea gustatuko litzaidake, munduko onenekin aritzea primerako ikas-



Alex Mariñelarena Alemaniako Sachsenring zirkuituan. TARGOBANK MOTORSPORT

taro azkarra delako eta segundo bakoitza urrea delako, baina ezinezkoa izan da. Baina esperientzia hartzeko helburuarekin etorri ginen eta horrekin gelditzen naiz. Hemen egon ahal izatea oso zaila izan da eta, alde horretatik, zorionekoasentitzen naiz" gaineratu du pilotu irurtzundarrak.

Targobank Motorsporteko Raul Millan managerrak gaineratu duenez, Alemaniara etortzearen helburua "Alexek esperientzia hartzea" zen, aurretik ibili ez den zirkuitu konplikatua batean eta munduko onenekin batera. "Alexendakoaste-

buru gogorra izan da, hainbateroketa izan baititu, baina pilotu handia da eta ziur esperientzia honi alde positiboa aterako diola" azpimarratu du managerrak.

Helburua: Espainiakoa

Targobank Motorsport taldearen helburua Alex Mariñelarenak Espainiako Abiadura Txapelketako Moto2 maila irabaztea da. Egun sailkapen orokorrean Roman Ramos da liderra (85 puntu), Alexen aurretik (66 puntu). Lau lasterketa geratzen dira, irailtik aurrera jokatu direnak.

Pilota

OLAZTIKO 42. SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETA

Osteguneko finaleko txartelak jokoan

ASTE BURUAN FINALERDIAK JOKATUKO DIRA ETA OSTEGUNEAN, OLAZTIKO FESTEN LEHEN EGUNEAN, FINAL HANDIAK

Olaztiko San Migel elkarteak eta Sutegik antolatutako pilota txapelketa azken txanpara heldu da. Santa Ana festetako lehen egunean, garilaren 25ean, ostegunean, 42. San Migel Pilota Txapelketako final handiak jokatu dira. Goizeko 9:30ean kategoria txikiko finalak erabakiko dira, txikiatik hasita 22 urtez azpikoetaraino, eta arratsaldean, 17:00etan, kategoria nagusikoak, afizionatuak eta elite mailakoak. Ondoren egingen da sari ematea.

Asteburu honetan, ostiralean eta larunbatean, finalerdiak daude jokoan. 1. mailan, 2. mailan, 3. mailan eta afizionatuak bigarren finalerdi jokatu dira. Afizionatuen lehen finalerdi, Loban-Tabar bikoak lortu du finaleko txartela, Ansotegiri eta Landiribarri 22-20 irabazita, partida oso estuan. Bestalde, asteburuan txikien, umeen, kimuen, haurren, kadeteen, gazteen eta 22 urtez azpikoekin finalak jokatu dira.

Onenen ordua da, eta ea nor helitzen den finaletara.



Pilotariak lanean. ARTXIBOA

Asteburuko finalerdiak

Gaur, ostiralean, 20:30ean

3. maila: Iñaki-Migel / Muñoa-Etxeberria

2. maila: Peixel-Garziandia / Barban-Pazku

1. maila: Ezkurdi-Arruti / Senar-Gebara

Afizionatuak: Larrañaga-Beobide / Azpiri-Linzoain

Bihar, larunbatean, 18:30ean

3. maila: Pablo-Galu / Iñaki-Ibon

2. maila: Beñat-Aritz / Javi-Aies

1. maila: Murgiondo-Agirre / Mazkieran-Alustiza

Futbola



Futbola pasio

Aurreko astean 2001etik 2003ra bitartean jaiotako 34 gaztetxo aritu ziren futboleko murgiltzen, Mankok antolatutako futbol campusean, eta aste honetan 1998tik 2000 urtera bitartean jaiotako 22 gazteen txanda da. Peio Goikoetxea entrenatzailearen eta Jokin Lobo eta Jon Lapuente monitoreen begiradapean dabilta. 2. txandako parte-hartzaileak: Ekai Urkijo, Jonan Zelaia, Gorka Ansa, Julen Goikoetxea, Urko Maxim Izagirre, Jon Mendia, Imanol Lobo, Manex Goikoetxea, Aitor Lopez, Jon Intxausti, Hasier Galarza, Ander Gil, Alex Lopez, Eneko Vera, Ander Agirre, Tasio Merchan, Jokin Bereziartu, Mikel Arellano, Iker Alvaro, Andoni Diaz, Jonatan Francisco Jimenez eta Unai Alaba.

Jaialdi politik Irurtzunen

Irurtzuno festetan pilotak bere tokia izango du. Ostiral goizean, kategoria txikiko partidak jokatu dituzte Bi Aizpe pilota klubeko pilotariak. Aldiz, larunbatean, seniorretan eta afizionatuetan dabilta Irurtzuno klubetako puntako pilotariak lanean ikusiko ditugu. Aipatzekoa da Alberto Ongayren itzulera. Asperekin 6 urte profesionaletan aritu ondoren, afizionatuetan dabil orain satrustegierra, Bi Aizpe taldean. Asier Pazos lakuntzarrarekin bikotea osatuko du, Xuban Armendariz eta Xabier Tolosa gipuzkoarraren kontra aritzeko. Beste lehian, Ijurak eta Irañetak Ezkurdi-Bergera izanen dituzte aurkari.

Irurtzuno jaialdiak

Gaur, ostiralean, 10:30ean

Txikiak: Nagore-Montiel / Garmendia-Martiarena

Umeak:

Ortiz-Lukas / Correa-Huarte
Martin-Martiarena / Gorostieta-Laso

Kimuak:

Erbiti-Arrastia / Zia-Gorostieta
Arroz-Azpiroz / Amezketeta-Lasa
Haurrak: Galarza-Arroz / Cobos-Azpiroz

Bihar, larunbatean, 19:00etan

Seniorrak:

Ijurra-Irañeta / Ezkurdi-Bergera
Ongay-Pazos / Armendariz-Tolosa

Irailaren 17a
baino lehen bidali

Udako G argazki lehiaketa

>> Saria: KATE informatikak eskainitako webcam-a, mikrofonoa eta aurikularrak

ADI, oinarri berriak:

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel, eta jpg formatua izatea. Argazkiak Sakana hartutakoak izan beharko dira. Argazkiari bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri beharko dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Blerrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko bidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Blerrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak irailaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira maketazioa@guaixe.net helbidean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

Enbataz sartzen

Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

FLORES S.L.

txistor ekologikoa

Uztuzar industriak - Rf. - Faxa: 948 460 499

Ska pintzelkadak



Asteazkenean, 20:00etan Lakuntzako ostatuan

Arte nahasmena, *the art confusion*, sortuko dute, atzera ere, Jokin Alegria margolariak eta Dj Nestortxok. Azken horrek, Ska musika jarri eta entzuten diren taldeei buruzko azalpenak ematen dituen bitartean, Alegriak pintzelak mihisean dantzatuko ditu. Haren esku trebetik entzuten den

musika estiloko kantari baten erretratua aterako da. Bi artistak lanean ari diren bitartean, txartelak salgai egonen dira eta saioa despidituz (ordu bat edo ordu eta erdi) Alegriaren koadroa zozketatuko da. Altsasuko Gernika tabernako esperientzia onaren ondoren, rock and rolla eta Jim Morrison izan ziren orduan protagonista, orain, bigarren arte nahasmena dute bi lakuntzarrek.

Euskaraz bizi nahi dut film laburren lehiaketa antolatatu du Kontseiluak

Bigarren aldiz antolatatu du Kontseiluak *Euskaraz bizi nahi dut* film laburren lehiaketa. Izen bereko dinamikaren baitan kokatzen den ekimena da. "Film laburren bidez euskaraz bizitzeko nahia irudikatzea da lehiaketa honen helburua", esan du Kontseiluko komunikazio buru Saioa Rodriguezek. Bestela esanda: herritarrei euskaraz bizitzeko arrazoiak eskaintzea; euskaraz bizi nahi duten herritarrek pai-

ratu behar dituzten egoerak agerian uztea eta horiek eragiten dieten egonezina erakustea; euskaraz bizitzeko erabaki dutenen adorea eta jasotzen duten elkartasuna erakustea edo etorkizuna irabazteko euskaraz bizi nahi dut pentsamendua iraultzailea dela erakustea.

Irabazleek dirutan jasoko duten sariaz gain, Donostiako Zinemaldian eta Hendaia Film Festival-en egingo diren jendaurreko emaldiak izango dituzte sari eta litekeena da, ondoren ere, beste zinemaldi edo zinema-aretoetan ere ikusgai egotea. Oinarriak www.euskarazbizinahidut.org webgunean ikus daitezke.

bazterretik

Ibai Hernaiz Ormaetxea

Agur eta ongi etorri

Hitz hauekin laburbildu dezaket heldu den urterako bizitzak eskaintzen didan egoera berria. Guaixelariokin izandako azkenengo hitzetan neure buruari analisi txiki bat egin nion. Egoera berria da niretzako eta topera bizi nahi dut. Horretarako zeregin batzuetan tarte txiki bat bilatu nahi izan dut, eta horien artean orrialde hauetan idazten ditudan hitz hauek daude. Egia esan, terapia txiki batean bihurtu da Guaixek eskaintzen didan tarte hau. Momentuan bizi edo bururatzen zaidanari buruz idazteko aukera izateak, garbiketapsikologikoko batean bihurtu dezake momentu jakin batzuetan, bai-

na kasu honetan gorputzak beselako aldaketa bat eskatzen dit. Agur. Ez da betiko agurra, heldu den urtean berriro zuekin izango naiz eta. Ez zarete nitaz libratuko, kar, kar, kar... Dena den, zuetako askok egunero bizi duzuen egoera bat da, ez da beste munduko ezer, baina niretzako berria da. Hauxe izango da Enaitzi egingo didan ongi etorria gure bizitzara. Lagunek diote semeek bizitza eraldatu egingo dituzela, eta lehen egiten zenuen gauza asko ezin izango dituzula egin... tira, baliteke egia izatea. Baina desiratzen nago egoera berri honi aurpegia jartzeko. Ongietorri beraz gure bizitzara etorri behar den "sakanikola" berriari eta heldu den urtean kontatukoak hitz egingo dugu.

Iturmendiko dantzariak, herriaren babesean



Euriagatik, maiatzaren batean frontoian dantzatu zuten estreinakoz Iturmendiko dantzariak. Atzo dantzatu behar zuten garaian ere euriari eman zion eta festetarako jarritako eszenatokian dantzatu zuten dantzariak. Aitziber Fernandez eta Edurne Gonzalez irakasleek irakatsitako dantzak eskaini zituzten 5 eta 17 urte bitarteko 18 dantzariekin (8 txiki eta 10 gazte). Saioaren ondoren pozik

gelditu ziren iturmendiarrak.

Fernandezek azaldu digunez, 2011-2012 ikasturtean sortu zen txikien dantza taldea, guraso batzuen ekimenez. Haiek eskatuta, ikasturte despiditu berrian irakasle hasi ziren Fernandez eta Gonzalez, biak ere Etorkizuna dantza eskolan eta Aitzindari dantza taldean arituak baitira. Astean behin, ostiraletan, talde bakoitzak ordu betez entsetzen du, udaletxeko ganbaran. Fernandez penatuta azaldu zaigu tal-

dean mutilikez dagoelako. Hala ere, gurasoek taldearekin duten inplikazioarekin pozik daude. Hots eginenez gero edonora dantzan joateko prest ere azaldu dira.

Bi irakasle iturmendiarrak Urdiainen ere dantza eskolak ematen dituzte. Udalak antolatutako dantza ikastaroan 4 eta 9 urte arteko 18 bat haur dituzte. Bi urte inguru ditu talde horrek eta dagoeneko San Joanetan eta festetan dantzatu izan dute.

Salazarrek Donostia hartu du

Koldo Mitxelenako Ganbara aretoan eta Arteko galerian erakusketa bana ditu

Irailaren 14ra arte dago ikusgai, asteartetik larunbatera, 16:00tik 20:00etara

Asteartean mustu zen Dora Salazarren *Entrelazar* erakusketa Donostiako Koldo Mitxelena kulturuneko ganbaran. Giza eskalako zazpi eskulturak eta horiekin lotuta dauden zazpimarrak osatzen dute erakusketa. Eskulturak *Princesas* sailekoak dira eta 2011n editatuz *Cuentos para adultos* liburuan agertzen dira. Haiekin batera beste lan batzuk ere daude ikusgai: 1995 urtean *Intimidad Pre-*



servada (kortseak) seriearekin hasitakoak. Lan horietan Altsasuko artistak mundu sinboliko alternatiboa aztertzen du, batik bat emakumearen unibertsoan zentratuz.

Donostiako Arteko galeriak

(Iparragirre, 4) kulturuneko erakusketa osatzeko beste erakusketa bat prestatu du. Erakusketa horretan erlazioa duten hiru alditako lanak daude ikusgai.

+www.guaixe.net

Suarez Eako Poesia Egunetan

Gaur hasi eta igandera bitartean Bizkaiko Ea herria eskualletan, zehazki poesiaren erdigune bihurtuko da. Hamargarren aldiz Poesia Egunak antolatutako astebururako Ean. Hain-

baterrezitaldi eta kantaldi jasotakoak. Horien artean dago Castillo Suarezek bihar, 22:30ean, Eskolapean emanen duena. Suarezek *Urtebetetze festa* (Elkar, 2012) liburuko hainbat poema errezitatu-

tuko ditu Borja Estankona musikariaren eta Ainara Lasaren irudien laguntzaz. Hitz, irudi eta musika artean ezkututzen den mundu iradokitzaile bezain zorrotza agerian utziko du olerkariak.

G asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 8%	euria: 8%	euria: 8%	euria: 15%	euria: 13%	euria: 13%	euria: 18%
Min: 14 Max: 29	Min: 18 Max: 31	Min: 18 Max: 29	Min: 17 Max: 28	Min: 17 Max: 30	Min: 18 Max: 28	Min: 16 Max: 25

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	33.3	11.6	3.4
Altsasu	31.5	12.5	1.8
Aralar	25.5	13.2	2.3
Urbasa	29	9	9.4

: ilargiaren aldia>>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
22	29	6	14

Acrylcolor SISTEMA BERRIA **KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE** **KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK Tel: 948 563 253 Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

2014 Egutegiaren eskaintza mundiala!

Mahai, poltsiko, eta horma egutegiak

irailaren 30era arte

948 564 275
publi@guaixe.net
publizitatea@guaixe.net

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

>> 11 galdera

Jabi Galarza eta Laida Etxeberria

Flashmobeko antolatzaileak

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



1.- Zer da flashmob bat?

J. G.- Flashmob bat abesti koreografiatu bat da. Abestia moldatu egin dugu eta horrekin dantza bat osatu. Abesti hori leku publiko batean, kasu honetan Bakaikuko plazan, abestu eta dantzatzeko dugu. Mobilizazio alaitsu eta parte-hartzailea da.

2.- Zergatik egingo duzue flashmob hau?

J. G.- Sakanan jarri nahi duten errausketaren aurkako ekimen bat da. Uste dugu gure osasunerako oso txarra dela, baita ingurugiroarentzat ere. Errausketaren aurka jendea mugiarazi nahi dugu, abestiaren eta dantzaren bidez.

L. E.- Jendea motibatuagoa eta ilusionatuago dago. Beste protestak baino ikusgarriagoa da eta jendeak ikusten duenean gehiago erakartzen du.

3.- Nola sortu zen ideia?

J. G.- Gaur egun horrelako gauzak nahiko modan daude. Zerbait berritzailea egin nahi genuen, ez betiko ekintzak edo protestak. Euskal Herriko zenbait herritan horrelako esperientziak egin dituzte, horiek ikusi genituen eta ideia ona iruditu zitzaigun: zerbait berritzailea eta ohiko protesta moldetatik haratago joaten dena. Politika izan zitekeela pentsatu genuen. Mobilizazioetan berri-itu behar da.

4.- Zenbat pertsonen parte hartuko dute?

L. E.- Nork daki! Egunean bertan ikusiko dugu. Plaza betetzea nahi dugu. Eta plaza betetzeko bakai-

kuarrak, sakandarrak eta inguruko bailaretakoak etortzera animatzen ditugu. Azken finean errausketa planta honek denoi kaltetzen digu. Ongietorriak dau- de Bakaikura.

J. G.- Jendea animatzen ari da. Lau- tadakoak animatu dira ere. Abestiaren bideoa grabatu genuenean Sakanako jendea ere egon zen, eta giroa ikusten da.

5.- Lady Gagaren abesti baten doinuarekin abestuko duzue flashmoba.

J. G.- Abesti honen erritmoa dant- zagarria da. Koreografia egiteko erraza zen. Mundu guztiak dant- zatu dezake eta, gainera, nahiko gogoeraza da.

6.- Letra, aldiz, herritarren artean osatu duzue. Zer dio letrak?

L. E.- Izenburuak dio "Hartu nahi dut arnas". Honekin esan nahi dugu guk Sakanan haize garbia nahi dugula eta ez dugula aire kutsatuarekin bizi nahi. Erraus- keta planta inposatzen badigute ke txarra izango dugu, eta ez dugu gure bailaran ke txarrik nahi.

7.- Noiz hasi zineten entseguekin?

L. E.- Entseguak uztailearen 12an hasi ziren. Astelehenetan, asteaz- kenetan, ostiraletan eta larunba- tetan elkartzen gara entseatzeko, egun bakoitzean Bakaikuko toki batean. Aurretik abestiaren aur- kezpena egin genuen eta lehe- nengo urratsak erakusten hasi ginen. Entseguak oso barrega- rriak eta politak dira.

J. G.- Sakanako zenbait herritan ere entseguak antolatzen ari gara.

8.- Internet bidez koreografia ikasi daiteke?

J. G.- Aste honetan bideo bat pla- zaratu dugu eta bertan koreogra- fiaren urratsak markatuta ager- tzen dira. Errausketarik ez flash- mob.wordpress.com web orrian aurkitu daiteke. Abestiaren aur- kezpenaren bideoa eta bideoklip bat ere jarri dugu Interneten.

9.- Uztailearen 27an izango da flashmoba. Bakaikuko plaza betetzea da helburua?

L. E.- Entseguak Bakaiku osoan egi- nen ditugu, gehien bat jendea era- kartzeko eta hainbat tokiko jen- deak ikus dezan entseguak egiten ari garela. Egunean bertan Baka- ikuko plazan izanen da.

J. G.- Espero dugu plaza txiki gel- ditzea eta alboko kaleetan ere egin behar izatea, jendea ez dela- ko sartzen.

10.- Flashmoba egin ondoren, zein da hurrengo urratsa?

L. E.- Lehenengo gauza flashmoban dantzatzea da, plaza bete eta seku- lako jaia egitea.

J. G.- Gero bideoa Interneten jarri- ko dugu eta ahalik eta jende gehie- nak gure eskaera ikus dezan saia- tuko gara, hau da, errausketaren kontrako mezua jende gehiagori iristea. Bideoa abuztu hasieran Interneten jartzea espero dugu.

11.- Zer nolako tresneria erabiliiko duzue?

J. G.- Bost edo sei kamera erabili nahi ditugu. Plataformak erabi- liko ditugu aireko planoak har- tzeko baita kamera mugikorrek ere. Ahotsak grabatzeko mikro- fonoak erabiliiko ditugu.

Ijili-ajala, han eta hemen, GORA FESTAK!!

Olaztiko Santa Ana festak 2013
uztailearen 25etik 28ra
del 25 al 28 de julio

Festa programak eta kartelak egiten ditugu

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
diseinua & inprimatzea